


Abiadura haundiko trena: ibilbidea egiteko obrak aurten hasiko dira

■ Astigarraga aldetik etorri eta Urnieta aldera joango da ■ Bide oso zuzena du, abiadura medio ezin baitu bihurtzeko haundirik izan.



Hauxe izango da AHTak Hernanin egingo duen bidea.

ABIADURA Haundiko Trena (AHT) Hernanitik pasako da. Geltokia Astigarragako erriberan izango du, Ergobi inguruan.

ERGOBITIK HERNANIRA Akarregi eta Zikuñaga artean 780 metroko tunel barrutik

joango da trena; Ibarluze poligono inguruan aterako da 17 metro altuko biadukto batera. Elorrabi, Iparragirre eta Altzuetza sagardotegi ondotik pasako da eta 200 metroko tunelean sartu. Osiñagan aterako da Eizmendi eta Otsu-Enea sagardotegien ondoan.

LURPEAN URNIETARA Osiñagako tuneletik irteeran, 22 metroko altueran joango da biadukto batean, Errotarango etxe gainera. Arrilimoi erreka zeharkatu eta 2440 metroko tunel batean sartuko da, berriz ere, Urnieta parajeetan ateratzeko. □

MENDIRIZ MENDI

Gaztetxoentzako irteera datorren igandean

■ Urkita mendira (854 m) joango dira ■ Izen ematea urtarrilaren 25a baino lehen egin behar da.

DATORREN iganderako, irailak 28, mendi irteera antolatu du Mendiriz Mendik. Gazte-txoek 300 pezeta ordaindu beharko dute; hel-

duak, berriz, 600.

LOKALETIK PASA Izena emateko Mendiriz Mendiko lokaletik pasa gaur

edo ostegunean ilunabarreko 20:00etatik 21:00etara.

Irteera goizeko 08:00etan egingo dute Atsegindetik, bueltatu auskalo. □

Jatetxea

Venta Berri
Arano - Nafarroa
(948) 51 40 18
LARUNBATETAN ITXITA

HATOR
AHOLKULARITZA

Asesoria

HATOR
Aseguruak

Fiskala
Laborala
Kontablea
Administratiboa

Kardaberaz 60
Tel. 943. 55 43 12
20120 HERNANI

hkronika.com

**Hernaniko
Kronika
interneten**

ANOREXIA ETA BULIMIA

'Trastornoak Elikaduran' hitzaldia gaur Biterin

■ Ongintzak eta ACABE elkarteak antolatua.



Lehenengo astean jende asko izan zen Biteriko hitzaldian.

'PREBENTZIOA familian' hitzaldien barruan, anorexia eta bulimiari buruzkoak dira lehenengo asteak eta gaurkoa. Hitz egitera ACABE elkarteak psikologoa etorriko da, anore-

xia eta bulimiaren kontrako taldekoa.

Bi alditan emango du hitzaldia, jendeak joateko aukera izan dezan: arratsaldeko 14:45 eta 16:15etan. □

BATASUNA PROZESUA

Ezker Abertzalea aurrera egiteko bidea aukeratzen

■ Gaurtik ostiralera bost ponentzia azalduko zaizkio jendeari, bat aukeratzeko ■ Biterin 19:30etan.

EZKER Abertzalearen bidea erabakitzeko eztabaida prozesu bat jarri zuten martxan, iaz. Geroztik, bost aukera ezberdin jarri dira mahai gainean; bost ponentziak.

gunean *Aralar* eta ostiralean *Igitaia eta mailua* ponentzia. Ondoren bost ponentziatako bat aukeratu da.

MOLOTOFF IRRATIAK ELKARRIZKETAK

Arratsaldeko 16:00etatik aurrera ponentziak azalduko dituztenei elkarrizketa egingo diete Molotoff irratiari, egunero: Niko Elizondo, Joseba Ibarburu, Aritz Zubimendi, Patxi Zabaleta eta Koldo Barriosi; FM 99.2an. □

HERRIZ HERRI AZALTZEN

Orain, bost ponentziak ari dira azaltzen herriz herri. Hernanin aste osoan zehar: Astelehenean *Arragoa* Ponentzia; asteartean *Piztu*; asteazkenean *Bateginez*; oste-

XALAPARTA ELKARTEA

Maialen Lujanbio izango da lehen emakumezko bazkidea

■ Atzoko asanblean erabaki zuten aita zenaren ordeztzea ■ Onartu duten lehen emakumezkoa da ■ Hamaikagarren *hernaniar bikaina* ere aukeratu zuten: Fermin Cuesta.

Eusko Alkartasunaren batzarra bihar

■ Afiliatu eta jarraitzaile guztientzat da *hiri batzarra* ■ Arratsaldeko 19:00etan Alkartetxean.

■ FUTBOLA

Hernanik berdindu, Zallaren kontra

■ Galtzen hasi ondoren partidua berdintzea lortu bazuten ere, ezin irabazi.

BANAKO berdinketarekin amaitu zen atzo Zubipen jokatu-tako 3. mailako neurketa. Lehenengo zatian Bizkaitarrak aurreratu ziren 0-1. Gol honen ondoren, kanpokoak ondo itxi ziren atzean eta hernaniarrek nahi eta ezin.

2. ZATIAN BERDINKETA Jarraipenean partidua berdintsu hasi zen, bizkaitarrak atzean eta bertakoak golaren bila. Hau hogeitabostgarren minutuan iritsi zen, zelairatu berri zen Insaustik, atezainaren erretxaze bat sareetara bidali zuenean. Berdinketa honekin, Hernani sailkapenean behe-runtz doa. □



Zerura begira, baloia nora etorriko. Zortetik behintzat ez da erori!

■ WATERPOLOA

Hernanik Easori 14-5 irabazi zion

■ Partidurik galdu gabe jarraitzen dute.

HERNANIK nahiko erraz irabazi zuen atzo eguerdian kiroldegian jokatu-tako partidua. Garaipen honekin lehenengo postuan jarraitzen dute hernaniarrek. Datorren aste-buruan liga irabazteko partidu inportantea dute, bigarren postuan doan *Menditxoren* aurka jokatu-tako baitute. □

■ BOLEIBOLA

la izerditu gabe nagusitu zen Hernani Barakaldon

LEHEN sailkatua azken sailkatuari erraz nagusitu zitzaion atzo 0-3. Bakoitzak sailkapenean duen postua zergatik duen argi gelditu zen. Beste emaitzak ere alde izan zituzenez, orain, alde haundiagoarekin doaz lider.

Jubenilek 3-0 galdu zuten 3. doan CV Sestaoren aurka; nahiko gerra eman zieten hala ere. □



■ ERRUGBIA

Garaipen garrantzitsua Hernanik

■ 23-13 gairitu zuen Hernanik Gernika, atzo goizean jokatu-tako partiduan.

MAILARI eusteko pausu handia eman zuen atzo Hernanik. Lehenengo zati orekatu batean, azken minutuan, Benantziok lortu-tako entsegu eta segidako transformaketakin, 13-8ko margialuarekin irtiti ziren atsedena-ldira. Bigarrean, Benantzioren beste entsegu batekin heldu zen lasaitasuna.


3 TALDE ATZETIK

Fasea amaitzeko 3 partidu falta direnean, Hernanik 4 puntuko aldea ateratzen dio azkenari. □



Bi taldeak Landaren.

■ HITZ BITAN



Salillas, Danielek bilatu-tako izokia erakusten Txantxangorri.

✓ IZOKIAK URUMEAN

Atzo 5-6 kilo inguruko izokina azaldu zen Txurianeko zubi parean. Hilda azaldu zen eta beste hiru bat bizirik, galantak haiek ere. Daniel arotzak aurkitu zuen paseoan zebilela eta Txantxangorri elkartera eraman; gaua bertan pasa du eta gaur Diputazio-tik etorriko dira bila, analizatze-ko. Izokia, jaiotako tokira etortzen omen da arrautzak jartzera, eta ondoren hil egiten da, nekeari buelta eman ezinda; litekeena da hau ere horrela hil izana.

✓ ELUR TXORIKO MUS TXAPELKETA

Ostegunean jokatu-tako dira final laurdenak. Irabazleek urtarrilaren 30ean jokatu-tako dute finalaurrekoa. 3-4garren postuak 31ean erabakiko dira eta finala Otsailaren 1ean izango da. FINAL LAURDENAK:

BI BITARA	BURUZ BURU
Rafa-Xabi Peñagarikano-Quijera	I. Imaz / Ayerdi
Tomasena-Larrañaga P. Lopez-Iturriza	Tatxon / D. Carrera
Esnal-Iturriza Lapazaran-Arozamena	
Zozketaz aurrerako: Zubilaga-Martinez.	

✓ ZINEA

Cara a cara botako dute Triku tabernan. Gau-eko 21:00etan.

HERIOTZAK

Rufina Goñi Lasa

Atzo hil zen 87 urte zituela

Hileta elizkizuna gaur, astelehena, eguerdiko hamabietan, Zaharren egoitzako kaperan.

IRRATIAK

(E.M. 99.2): 11:40etan: Jon Zabaleta Manuel Larburu zenari buruz. 12:00etan: Luis Mari Zaldúa, AHTa pasatzen den tokien inguruan 12:20etan: Ilazki elikaduran trastornoak hitzaldiari buruz.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

☎ Taxiak:
943 550093
☎ Udaltzaingoa:
943 333288
☎ DYA:
943 464622
☎ Anbulatorioa:
943 557750

☎ FARMAZIAK

☎ Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri, 11
☎ 943 553582
☎ Gaez: Tanco
Urnieta, San Juan 36
☎ 943 550942
☎ ASTEARTEA
☎ Egunez: Chucla
Kardaberaz 48

☎ 943 551793
☎ Gaez: Gorospe
Andoain. R. Arregi 1
☎ 943 592415
☎ ASTEAZKENA
☎ Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri 11
☎ 943 553582
☎ Gaez: Arzallus
Andoain. Plazaola 17
☎ 943 591514

ASTEBURUKO PARTIDUAK

■ BOLEIBOLA

Euskadiko liga
Galdakao B.T 0
UPV Hernani 3
Euskadiko liga
CV Trueba 3-
Hernani KE 0

■ ERRUGBIA

1 Liga Nazionala
Hernani 23 - Gernika RT 13
Jubenilak. Euskal Liga
Hernani 41-Ordizia 0

■ ESKUBALOIA

2. Nazionala:
Urdaibai 22 -Hernani 23
■ FUTBOLA
3.maila
Hernani 1-Zalla 1
Gorengo Maila:
Hernani 2-Beti Ona 0
Emakumezkoen Liga:
Ordizia 0-Hernani 0
Gazteen liga nazionala:
Hernani 3-Retuerto 0
Gazteen Ohorezko Liga
Eibar 2-Hernani 1

Gazteen 2.Maila

Hernani 3-Danena 1
Kadeteen Ohorezko Liga
Hernani 1
Real Union 1
Kadeteen 2.Maila
Groseko 2-
Hernani 2
Haurren Ohorezko Liga
Eibar 0-Hernani 1
■ PELOTA
Paleta Goma. Euskadiko tx:
Lasa-Martinez
Luiando (ez da jokatu)

Jubenilak eskuz. Udaberri tx:

Alvarez-S. Sebastian 22
Altazarra 9
Kadeteak eskuz. Udaberri tx:
Arrieta-Leonet 22
Aurrera Tolosa 15
Kadeteak eskuz. Udaberri tx:
Iradi-Altuna 11 -
Arrasate 22
■ WATERPOLOA
2. Euskal Liga (Mutilak)
Hernani 14 - Easo 5